


APARKALEKUEN ORDENANTZA BERRIA

Aparkalekuen ordenantza berriak trafikoa antolatzen eta hobetzen lagunduko du eta **aparkalekuen errotazioa eta erabilera ona bermatuko ditu.**

Aparkatzeko leku- eta denbora-mugak ezarriko ditu herriko hainbat eremutan.

2022ko
ekainaren
1ean jarriko
da indarrean



APARKATZEKO UDAL TXARTELA

Orion erroldatutako ibilgailuek beti bezala jasoko dute Aparkatzeko Udal Txartela. Ibilgailuaren matrikula izango du eta ezingo da eskualdatu.

Aparkatzeko Udal Txartela dutenek **edozein lekutan** aparkatu ahal izango dute denbora-mugarik gabe, **errotazio handiko eta egonaldi laburreko eremuetan izan ezik.**

Bete beharreko **baldintzak**:

1. Orioko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan alta emanda egotea, eta erroldan adierazitako titulartasuna eta helbidea bat etortzea.
2. Ibilgailuaren titularrak Orioko Udalarekin inolako zorrik ez izatea.
3. Ibilgailuaren pisua, gehienez, 3.500 kg izatea.

Iraupena: Bi urte natural. Epea amaitutakoan, automatikoki berrituko da, baldintzak betetzen badira (aurtengoa, 2023/12/31 arte).

Prezioa: Doan.

BESTELAKO EGOERAK

Pertsona hauek ere edukiko dute Aparkatzeko Udal Txartela eskuratzeko aukera:

- Autoa alokairuan duten bertako bizilagunek.
- Enpresako ibilgailua erabiltzen duten bertako bizilagunek.
- Oriotik kanpo erroldatuta dauden baina Orion lan egiten duten langileek.
- Orion bigarren etxebizitza dutenek.
- Aian erroldatutakoek.

Bete beharreko **baldintzak**:

1. Ibilgailuaren titularrak Orioko Udalarekin inolako zorrik ez izatea.
2. Ibilgailuaren pisua, gehienez, 3.500 kg izatea.
3. Aparteko baldintzak, egoera bakoitzaren arabera:



Iraupena: Urte natural bat (aurtengoa, 2022/12/31 arte).

Prezioa: 80€ (ordenantza fiskaletan zehaztuko da urtero).



DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKUAK

EREMUAK

BERTAKOAK

Bertakoentzat gordetako guneak

Epemuga: Gabe.

Ordutegia:

24 ordu / 7 egun.

Norentzat: Aparkatzeko
Udal Txartela dutenentzat.

Seinala: Zuriz margotuta,
B eta R hizkiekin.



- Anibarko Portua
- Estropalari-Bikamiota
- Autopista azpiko ibilgailu luzeen aparkalekua
- Pelotari kalea
- Alde zaharra

ERROTazio HANDIKOAK

Gestio azkarrak egiteko plazak

Epemuga:

Gehienez, 15 min.

Ordutegia:

24 ordu / 7 egun.

Norentzat: Ibilgailu guztientzat, tiketik gabe.

Seinala:

Urdinez margotuta.



- Moilako aparkalekuak

EGONALDI LABURREKOAK

Izaera komertziala duten guneak,
errotazioa bermatzeko

Epemuga:

Gehienez, 1,5 ordu.
Doan lehen 30 min.
Ondorengo ordua,
0,5€, gehienez,
bertakoentzat,
eta 1€ kanpokoentzat.

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:00 / 16:00-20:00
Larunbatetan:
9:00-13:00.

Norentzat:

Ibilgailu guztientzat,
tiketarekin (Aparkatzeko
Udal Txartela dutenak
barne).

Seinala:

Urdinez margotuta.



- Eusko Gudarien kalea
- Arrantzale kalea
- Abeslari kalea
- Ibai-Ondo kalea

EGONALDI LUZEKOAK

Kanpoaldeko aparkalekuak,
herrigunera oinez sartzeko

Epemuga: Gabe.

Ordutegia:

Denboraldien eta eremuen arabera



Norentzat:

Aparkatzeko Udal Txartela dutenentzat,
tiketik gabe; eta txartelik ez dutenentzat,
tiketarekin.

Seinala: Urdinez margotutako zatiak.



- Hondartza
- Abaromendi
- Autopista azpia
- Munto

	BEHE DENBORALDIA	DENBORALDI ERTAINA	UDALDIA	DENBORALDI ERTAINA
	Azarotik Aste Santura	Aste Santutik maiatz bukaerara	Ekainetik irail erdira	Irail erditik urri bukaerara
HONDARTZA, ABAROMENDI, AUTOPISTA AZPIA	Libre	Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00	Astelehenetik igandera: 10:00-20:00	Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00
MUNTO	Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:00 eta 16:00-20:00 Larunbatetan: 9:00-13:00	Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:00 eta 16:00-20:00 Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00	Astelehenetik igandera: 10:00-20:00	Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:00 eta 16:00-20:00 Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00

Europako Aparkatzeko Txartela duten ibilgailuek **haientzat gordetako lekuetan** aparkatu beharko dute. Horiek beteta badaude, gainerako lekuetan aparkatu ahal izango dute doan, eremu bakoitzean haientzat egokitutako denbora-mugak errespetatuz.